

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUN FORMALA ETA IRITZI-ARTIKULUA LANTZEN

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Urriren 3tik azaroaren 3ra plataforma zabalik Aurrez aurreko saioak: urriaren 7an eta 28an	IKASGELA/ TOKIA	Aurrez aurreko saioak: IVAPeko 29. gela Lakua / Gasteiz
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	Aurrez aurreko saioak: 09:00etatik 12:00etara
MATRIKULA EPEA	Irailaren 16ra arte	ONIRITZI EPEA	Irailaren 19tik 23ra
BAJA EMATEKO EGUNAK	Urriaren 3a eta 4a	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 2HE gaindituta izatea
IKASLE KOPURUA	15	MATERIALA	Ikastaroan banatuko da
IRAKASLEA	Hiart Legarra (HPSko teknikaria)	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela
DISEINUA	Hiart Legarra		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	3.HEko gutun formalak eta iritzi-artikuluak sortzen trebatzea. Testu-mota horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
HELBURU ZEHAZTAK	<ul style="list-style-type: none"> - Gutun formala eta iritzi-artikulua sortzeko eta baloratzeko prozesua lantzea. - Ikasleak testu mota horiek sortzeko prozesu osoa ezagutzea: ideiak antolatuzetik testua ebaluatzeraino. - Prozesuan sortuko diren zalantzei erantzun praktikoa ematea. - Ebaluatzeko erabiltzen diren kontzeptuak ezagutzea (egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta zuzentasuna) eta sortu beharreko testura zelan eraman lantzea.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean, ikaslea gai izango da 3. HEko idatzizko testuak sortu behar dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITATEA:	LINEAKOA (aurrez aurreko saio bi)
HIZKUNTZA:	EUSKARA

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUN FORMALA ETA IRITZI-ARTIKULUA LANTZEN

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Aurrez aurreko bi saioetan ikastaroaren ildo nagusiak landu eta zalantzak argituko dira.
- Lineako saioetan ebaluazio-irizpideak landu eta ariketak egin beharko dira.
- Azken saioan, testuak idatzi ostean, irakaslearen balorazioa jasoko da.

PROGRAMAZIOA

1. unitatea (aurrez aurrekoa: urriaren 7an, Lakuan)

- Aurkezpena: zer da 3. HE? Nolakoa da azterketa?
- Ebaluazio sistema azaldu.
- Ebaluazio irizpideak azaldu:
 - egokitasuna
 - koherentzia
 - kohesioa
 - aberastasuna
 - zuzentasuna
- Gutun formala eta iritzi-artikuluak: eredu bana aztertu.
- Idazteko prozesua: estrategiak landu.

2. unitatea:

Idazketa prozesua.
Egokitasuna: erregistroa...

3. unitatea:

Koherentzia: ideien progresioa...
Kohesioa: kohesio-elementuak...

4. unitatea:

Aberastasuna: lexikoa...
Zuzentasuna: morfosintaxia, ortografia...

5. unitatea (aurrez aurrekoa: urriaren 28an, Lakuan)

- Zalantzak argitu
- Azterketetako ohiko akatsak ikusi
- Azken saiorako lana bideratu

6. unitatea: TESTUA SORTU

Aurreko unitateetan landutakoa oinarri hartuta eta gai batzuk emanda, gutun formal bat eta iritzi-artikulu bat idatzi. Irakaslearen balorazioa jaso.

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** ebaluaketa egiteko saioetan eskatuko diren ariketak eta azken saioko testua neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- kaslearen gogobetetze inkesta.
- Irakaslearen balorazio inkesta.



3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUN FORMALA ETA IRITZI-ARTIKULUA LANTZEN

**ZIURTAGIRIA:
APROBETXAMENDUA**

Bete beharreko baldintzak:

- Aurrez aurreko saioak: % 80ko bertaratzea
- Lineako saioak:
 - Zereginen % 80 egitea eta irakasleak ontzat ematea.
 - Azken saioko zeregina egitea ezinbestekoa izango da.

128 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk